

# *Egoeraren Azterketa*



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**2007an baino  
150.000 enplegu gutxiago**

**2007an baino  
100.000 langabe gehiago**


**2015ean sortutako enplegua  
aldi-baterakoa izan da**

**BPGa maximo historikotan  
kokatzen da**

**Langabeziagatiko prestazioek  
behea jo dute**

# Hego Euskal Herriko lan eta ekonomi egoeraren adierazleak (\*)

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>			
BIZTANLERIA OKUPATUA	1.159.300	2015EKO IV. HIRUHILEKOA	1.138.800
PARTZIALITATE TASA	%18,2	2015EKO IV. HIRUHILEKOA	%18,9
EMAKUMEAK	%30,6		%33,1
GIZONAK	%7,4		%6,2
SOLDATAPEKO LANGILERIA	975.000	2015EKO IV. HIRUHILEKOA	947.400
BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA	%24,4	2015EKO IV. HIRUHILEKOA	%22,2
EMAKUMEAK	%26,8		%25,9
GIZONAK	%22,1		%18,6
BIZTANLERIA LANGABEA	173.900	2015EKO IV. HIRUHILEKOA	220.500
LANGABEZIA TASA	%13,0	2015EKO IV. HIRUHILEKOA	%16,2
EMAKUMEAK	%13,9		%16,0
GIZONAK	%12,3		%16,5
GAZTE LANGABEZIA TASA	%42,3	2015EKO IV. HIRUHILEKOA	%42,0
EMAKUMEAK	%43,2		%37,7
GIZONAK	%41,6		%46,5
<b>KONTRATUAK</b>			
EGINDAKO KONTRATUAK	1.206.253	2015	1.053.128
KONTRATU PARTZIALAK	520.050	2015	386.569
BEHIN-BEHINEKO KONTRATUAK	1.129.477	2015	985.026
<b>BPGaren HAZKUNDEA</b>			
BPG EAE	%2,8	2015	%1,4
BPG NAFARROA	%2,9	2015	%1,5
BPG EUROPAR BATASUNA 28	%1,8	2015	%1,1
<b>KPIREN URTEARTEKO ALDAKETA</b>			
KPI ESTATU ESPAINIARRA	%0,0	2015EKO ABENDUA	-%1,0
KPI EUROPAR BATASUNA 28	%0,2	2015EKO ABENDUA	-%0,1
Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkie. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.			
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estadistika Institutua, Eurostat, INE, SEPE			
2016/02/29ean eguneraturiko informazioarekin			
130. zenbakia <b>Egoeraren azterketa</b> 2016.ko martxoa			



# Aurkibidea

## EGOERAREN AZTERKETA

1. Enplegua eta afiliazioa Gizarte Segurantzaren . . . . .	4
2. Enplegua sektorez sektore . . . . .	4
3. Soldatapeko enplegua . . . . .	5
4. Prekarietatea: partzialtasuna eta behin-behinekotasuna . . . . .	5
5. 2015ean egindako kontratuak . . . . .	6
6. Langabezia Hego Euskal Herrian: 100.000 langabe gehiago 2007an baino . . . . .	6
7. Iraupen luzeko langabezia, gazteak eta 55 urtetik gorakoak . . . . .	7
8. Langabezia-prestazioen estaldura . . . . .	8
9. Batez besteko prestazioa onuradun bakoitzeko . . . . .	8
10. Gastua prestazioetan BPGarekin alderatuta . . . . .	9
11. Ekonomiaren egoera eta bilakaera . . . . .	10

## HILAREN PUNTAKO GAIA:

Egoera ekonomikoari buruzko zalantzak . . . . .	11
--	----

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

# EGOERAREN A Z T E R K E T A

## Sarrera

2015. urteak bilakaera ona izan du hazkunde ekonomikoan, enpleguaren igoeran eta langabeziaren jaitsieran. Hala ere, lan prekarietatearen mailak okerrera egin du eta, era berean, langabezia-prestazio gutxiago eman dira.

Horrela, Hego Euskal Herriko ekonomiak 2007an abiarazitako subprime krisiaren aurreko mailak gaintu ditu, baina 150.000 lagun gutxiagok dute enplegua, eta horietatik 100.000 langabezia daude. Eta 2007ko BPGaren maila berreskuratu eta gaintuagatik ere, langabeentzako prestazioak askoz ere txikiagoak dira, eta horren ondorioz, 10 langabetatik 6k ez dute inolako prestaziorik kontratzen. Izan ere, prestazio horiek 2015eko BPGaren % 1,24 besterik ez dira izan, aurreko urteetan, aldiz, ia % 2ra iritsi zirenean.

Horrek guztiak berriz ere agerian uzten du herritarren kontra doazela gure gizartean eta ekonomian ezarri diren eta oraindik ere ezartzen ari diren neurri neoliberalak, gutxi batzuen aldeko neurriak direlarik; izan ere, are espekulazio handiagok gaintu nahi da espekulatzailerek eragindako krisia, eta horrek are haustura handiagoa eragin du gizartean, eta dena langileriaren kontu.

*\* Txosten hau 2016ko otsailaren 29an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Manu Robles-Arangiz Institutua  
www.mrafundazioa.eus  
Twitter: @mrafundazioa


# Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

## 1. Enplegua eta afiliazioa Gizarte Segurantzaren

Enpleguari dagokionez, 2015eko azken hiruhilekoaren bukaeran, 1.159.300 lagunek zuten enplegua HEHn (2014an baino 20.500 gehiagok), Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera (EPA). Laugarren hiruhilekoei dagokienez, okupazio daturik onena 2007koa izan zen (1,31 milioi lagunek baitzuten enplegua), eta txarrena 2013koa (1,13 milioi lagun lanean). Hau da, 2015 bukatzean ia 150.000 lagun gutxiagok zuten enplegua HEHn 2007an baino.

Gizarte Segurantzako datuek erakusten dute 2015. urtean batez beste 1.148.602 lagun egon zirela afiliaturik Hego Euskal Herrian, hau da, aurreko urtean baino 23.500 gehiago. Batez beste, urteko afiliazioak 2008an jo zuen goia (1,26 milioi lagun altan) eta zenbakirik txikiena, berriz, 2013koa izan zen (1,12 milioi lagun altan).

### Enplegua eta Gizarte Segurantzaren afiliazioa HEH



Iturria: INE, Seguridad Social

Enplegu eta afiliazioaren grafikoan ageri da gora egin zuela %1 eta %4 artean Hego Euskal Herrian lan egiten dutenen kopuruak (EPAn eta afiliazioaren datuen arabera, hurrenez hurren) harik eta 2008an subprime krisia hasi zen arte; gero, %11 eta %13 artean egin zuen behera, hurrenez hurren, eta 2013an lurra jo zuen; ondotik, hobetzen ari da, eta hazkunde metatua %2,5 izan da 2013tik 2015era.

Bi neurtzaile horien arteko aldea, kasu honetan, funtsezko bi konturi zor zaio:

- Gizarte Segurantzak afiliazio kopurua aipatzen du; ez, ordea, zenbat lagun dauden afiliaturik. Horrenbestez, lan bat baino gehiago duten langileak aldi bakar batez baino gehiago daude konputatuak, eta halakorik ez da EPAn gertatzen. Gainera, EPAk 60.000 familia inkestatzen ditu Estatu osoan, 16 urtetik 74 urtera bitartekoak, eta pertsona landuntzat jotzen ditu inkesta egin aurreko astean lan egin dutenak (nahiz eta ordu bakar bat lan egin).
- Gizarte Segurantzarako afiliazioa urteko batez bestekoa da; EPAn datuak, aldiz, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoari dagozkie.

Pertsona enplegudunetatik, 204.700ek 55 urte baino gehiago dute eta 36.100 gazteak dira. Lehen taldean gora egin du lana duten pertsonen kopuruak (11.800 gehiago 2015ean); baina, gazteen artean behera egin du (1.900 gutxiago daude 2014 bukatzean baino).

## 2. Enplegua sektorez sektore


Sektoreen arabera, beheko taulak adierazten duen bezala, HEHko pertsona enplegudunen %71 ari dira zerbitzuetako jardueretan, hots, 823.600 lagun (%58,4 emakumeak dira). Industrian biztanleria landunaren % 1,7 ari da, 251.100 lagun (%80,8 gizonak dira). Eraikuntzan 64.500 lagun ari dira, hots, %5,6 (%87 gizonak dira); eta nekazaritzan pertsona landunen %1,7 ari da, 20.200 lagun (%79,7 gizonezkoak).

### Landunak jarduera-sektorearen arabera Hego Euskal Herrian 2015eko 4. hiruhilekoan

	Nekazaritza	Eraikuntza	Industria	Zerbitzuak
Guztia	20.200	64.500	251.100	823.600
%	1,7	5,6	21,7	71
Gizonak	16.100	56.100	203.000	342.300
%	2,6	9,1	32,9	55,4
Emakumeak	4.000	8.400	48.100	481.200
%	0,7	1,6	8,9	88,8

Iturria: INE

Hori dela eta sektoreak erabat polarizatuak daude: enplegua duten emakumeen %88,8k zerbitzuetan



dihardute; gizonak, ordea, batez ere zerbitzuetan (%55,4) eta industrian lan egiten dute (%32,9).

Bestela ikusita, nekazaritza, industria eta erai-kuntza gizonaren eskuetan daude alde handiz (hiru sektore horretan ari direnen %82 gizonak baitira); aldiz, zerbitzuak alde handiz emakumeen eskuetan daude.

Autonomia erkidegoen arabera, Nafarroan jende gehiago ari da nekazaritzan (%3,5 eta EAEn, aldiz, %1,2) eta industrian (%24,6 eta EAEn, aldiz %20,8). EAEn, berriz, zerbitzuetan ari da jende gehiago (%72,7 eta Nafarroan, aldiz, %65,5). Sexuen arabera, soldatapeko aldeak bi lurraldeetan mantentzen dira.

Hego Euskal Herriko sektoreen arabera okupazioaren bilakaerarekin bat, zerbitzuen sektoreak ia %7 egin du gora 2008tik 2015era, sektore horretan lanean ari den zatiari dagokionez; beste hiru sektoreek, aldiz, pisua galdu dute: ia 3 puntu industriak; 3,5 eraikuntzak eta puntu erdia nekazaritzak. Dena taula honetan ageri da:

#### Biztanleria landunaren bilakaera sektoreen arabera Hego Euskal Herrian, 4. hiruilekoa

	Zerbitzuak	Industria	Eraikuntza	Nekazaritza
2008	64,2	24,5	9,1	2,2
2009	66,1	23,8	7,8	2,3
2010	68	22,8	7,3	1,9
2011	68,8	22,4	7,3	1,4
2012	70,7	21,2	6,2	1,9
2013	69,4	21,8	6,3	2,6
2014	71,7	21	5,4	1,9
2015	71	21,7	5,6	1,7

Iturria: INE

Horrela, 2008tik 2015era, HEH guztian, nekazaritzak 8.500 langile galdu ditu; eraikuntzak 52.700 lagun gutxiagori ematen die enplegua; industrian 63.100 gutxiago ari dira; kontrara, zerbitzuetako jardueretan 100 lagun gehiago ari dira.

### 3. Soldatapeko enplegua

Pertsona enplegudunetatik, 975.000k soldatapeko enplegua dute Hego Euskal Herrian. Horrek esan nahi du 17.500etan hobetu dela aurreko hiru-ilekoaren aldean, eta 27.600etan 2014ko azken datuarekin alderatuta.

Lurraldez lurralde ikusita, 757.700 EAEkoak dira (20.300 gehiago azken urtean baino) eta 217.300 Nafarroakoak (7.300etan hobetu da 2015ean).

Sexuen arabera, soldatapeko emakume kopuruak 100 lagunetan egin du behera azken urtebetean; beraz, soldatapekoen kopurua igo da soldatapeko gizonen kopurua igo egin delako.

### 4. Prekarietatea: partzialtasuna eta behin-behinekotasuna

HEHko 1.159.300 pertsona enplegudunetatik, 211.300 lanaldi partzialean ari dira. Horrexegatik da partzialtasun tasa %18,2, oso antzekoa Nafarroan eta EAEn.

Hala ere, partzialtasuna batez ere emakumeek pairatzen ditu, emakumeen %30,6 ari baita horrelako kontratuekin; gizonen artean, aldiz, %7,4. Egoera hori zuzenean dago lotuta familiaren eta etxearen esparruan egiten diren zeregin eta lanekin, gehienbat emakumeek egiten baitituzte.

2015ean, 4.200etan jaitsi da lanaldi partzialean ari direnen kopurua; horren ondorioz, partzialtasun tasa pixka bat jaitsi da (2014ko bukaeran %18,9 izan zen). Dena dela, azken urteotako bilakaerak erakusten du partzialtasuna asko handitu dela (2013ko bukaeran, %16,3 zen; eta 2008ko bukaeran, aldiz, %13,6).

Behin-behinekotasunari dagokionez, HEHko 975.000 soldatapekoetatik, 238.400ek iraupen mugatuko kontratu bat daukate; hortaz, behin-behinekotasun tasa %24,4 da. Aldi baterako kontratuean ari direnak 27.600etan hazi dira azken urtean; beraz, behin-behinekotasunak nabarmen egin du gora (2014ko bukaeran, %22,2 baitzen). Bestela esanda, soldatapeko enpleguan 2015ean izaniko hazkunde guztia aldi baterako enplegua izan da.



Honek ere emakumeak jotzen ditu gehienbat, haien behin-behinekotasun tasa %26,8 baita eta gizonen artean, aldiz, %22,1. Nafarroako emakumeek, gainera, askoz ere behin-behinekotasun handiagoa pairatzen dute: %30,4 eta gizonen artean %22,6. EAEn, honatx datuak: emakumeen %25,8 eta gizonen %22.

## 5. 2015ean egindako kontratuak

2015ean 1,2 milioi kontratu egin ziren HEHan (338.998 Nafarroan eta 867.255 EAEn). Horietatik %43,1 partzialak izan ziren, eta 1,2 milioi horien %93,6 behin-behinekoak.

### 2015ean HEHan egindako kontratuak

	Kontratuak guztira	Partzialak	Behin-behinekoak
HEH	1.206.253	520.050	1.129.477
%		43,1	93,6
CAPV	867.255	399.492	807.218
%		46,1	93,1
Nafarroa	338.998	120.558	322.259
%		35,6	95,1

Iturria: SEPE

Azpimarratu beharra dago emakumeek partzialitate maila altuagoa pairatzen dutela: Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoetan, emakumeek egindako kontratuen %47,7 partzialak dira (gizonen kasuan %38,5). EAEn ezberdintasuna handia da ere (emakumeen %52,5 eta gizonen %39,7). Nafarroan ezberdintasunak txikiagoak dira (%35,8 eta %35,3 hurrenez hurren). Behin-behinekotasuna sexuen artean oso antzekoa da. Hau guztia ondorengo taulan dago adierazita.

### Prekarietatea 2015ean egindako kontratuetan sexuaren arabera HEHan (%)

	Partzialitatea		Behin-behinekotasuna	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
HEH	47,7	38,5	93,7	93,6
CAPV	52,5	39,7	93	93,2
Nafarroa	35,8	35,3	95,4	94,7

Iturria: SEPE

Beraz, 2015ean Hego Euskal Herrian egindako kontratu ia guztiak behin-behinekoak izan ziren eta ia erdia partzialak. Horregatik, pertsona berak kontratu ugari sinatu zitzakeen 2015ean (partzialak, behin-behinekoak edota bien arteko konbinaketa). Honekin guztiarekin, egindako kontratuen informazioa oso larria da, prekarietate maila oso altua erakusten baitu; eta prekarietate maila altu honek are handiago egingo ditu jada altuak diren kontratu partzial eta behin-behinekoekin lanean ari diren langileen ehunekoak.

## 6. Langabezia Hego Euskal Herrian: 100.000 langabe gehiago 2007an baino

2015eko bukaeran, 193.160 (SEPE - Estatuko Enplegurako Zerbitzu Publikoaren arabera) eta 173.900 (INE - Estatistikarako Institutu Nazionalaren arabera) langabe zeuden, hurrenez hurren, kontabilizatuak eta kalkulatuak Hego Euskal Herrian. Horrek esan nahi du jaitsiera nabarmena gertatu dela aurreko hiru urteen bukaerako datuen aldean: zehazki, 2014ko abendutik 2015eko abendura, 20.397 lagunetan jaitsi da SEPEk erregistraturiko langabezia. Aldiz, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EPA) arabera, langabezia 46.600 lagunetan jaitsi da.

Guztizko datuen arteko aldea zor zaio SEPEk eta INEk langabezia neurtzeko erabiltzen duten metodologia ezberdinari:

- SEPEk kontuan hartzen ditu enplegurako bulego publikoan izena emanik dauden pertsonak, baina aldi berean 3tik gora hilabeteko iraupeneko nahiz asteko 20tik gora orduz lan egiteko enplegu baten bila ari direnak, baina badira salbuespenak; adi-




bidez, lehen enplegu bila ari direnak, ikasten ari direnak edo SEPEren prestakuntza ikastaro batean ari direnak.

- INEk 60.000 familia inkestatzen ditu Estatu osoan, 16 urtetik 74 urtera bitartekoak, eta langabetzat jotzen ditu inkesta egin aurreko astean enplegurik izan ez dutenak, inkesta aurreko hilean bilatu dutenak eta hurrengo bi asteetan lan egiteko aukera dutenak.

Azpimarra dezagun bi adierazleetan ez direla zenbatzen lana bilatzen saiatuta ere enplegurik lortzen ez duten pertsona guztiak. Hurrengo grafikoan ageri da nola bilakatu diren urte bukaerak, SEPEren eta INEren datuak daudenetik; hurrenez hurren, langabezia erregistratua eta langabezia dagoen biztanleria neurtzen dute.

### Urte bukaeran langabeak HEHn



Iturria: INE, SEPE

Grafikoan ageri da Hego Euskal Herriko langabe kopuruak bere horretan iraun zuela 2005etik 2007ra beheranzko joera txiki batekin; 2007tik 2012ra nabarmen hazi zen, eta horren ondorioz, langabezia 2,3 aldiz (SEPE) edota 3 aldiz (EPA) igo zen; gero, 2012tik 2014ra geldirik egon zen beheranzko joerarekin, eta 2015ean nabarmen egin zuen behera.

Horrela, 2015eko bukaeran, HEHko langabezia tasa %13 izan zen (urtebete lehenago, ordea, %16,2). Nolanahi ere, 2015eko bukaeran HEHn 100.000 lagun inguru gehiago zeuden langabezia 2007an baino. Gainera, gogoratu beharra dago 2015eko hirugarren hiruhilekoaren bukaeran (azken datuak direlarik) HEHko langabezia tasa ehuneko 4 puntu handiagoa zela 28ko estatuen

Europar Batasunekoak baino, eta tasa txarretan bosgarrena zela Grezia, Estatu espainiarra, Kroazia eta Zipreren ondoren.

EPAREN arabera, Nafarroan 41.400 langabe daude eta 2015ean zehar 5.000 lagunetan egin du behera (5.600 gizon gutxiago langabezian eta 600 emakume gehiago). EAEn, 132.500 langabe daude, eta 41.600 lagunetan jaitsi da (26.400 gizon gutxiago langabezian eta 15.200 emakume gutxiago). HEH osoan, 32.000 gizon langabe gutxiago daude eta 14.600 emakume langabe gutxiago 2015eko bukaeran urtebete lehenago baino.

SEPEren arabera, 2015 bukatzean, 43.143 lagun daude langabezian Nafarroan (5.284 gutxiago urtebete lehenago baino) eta EAEn, berriz, 150.017 lagun (21.388 gutxiago).

## 7. Iraupen luzeko langabezia, gazteak eta 55 urtetik gorakoak

Abenduan langabezian zeudenetatik, 104.100ek (%59,9) gutxienez ere 12 hilabete zeramatzaten lanik lortu gabe; hau da, iraupen luzeko langabezian. Ehuneko horrek ere behera egin du aurreko datuen aldean, %63 izan baitzen.

Iraupen luzeko langabeziak gehiago ukitzen ditu gizonak emakumeak baino (HEH osoan %3 handiagoa da emakumeen artean) eta handiagoa da halaber EAEn Nafarroan baino (%3 inguru handiagoa).

2015eko bukaeran, 55 urtetik gorako 20.200 lagun daude langabezian, hau da, 2014an baino 1.200 gehiago. Nafarroan izaniko bilakaerak eragin du hori, adin talde horretako langabezia 1.600 lagunetan igo baita (EAEn 400 lagunetan egin du behera).

Izan ere, 55 urtetik gorako gizon langabeak 800 gutxiago dira EAEn. Nafarroan, berriz, 1.000 gehiago. Eta 55 urtetik gorako emakume langabeak 600 gehiago dira Nafarroan, eta 400 gehiago EAEn.

Gazte langabeziari dagokionez, 26.500 pertsona aktibo daude langabezian 16tik 24 urte bitartera, 1.000 gutxiago urtebete lehenago baino; hala ere,

gazteen arteko langabezia tasak gora egin du eta %42,3ra iritsi da; urtebete lehenago %42 izan zen.

Europar, hiru Estatuk bakarrik zuten langabezia maila txarragoa 2015eko hirugarren hiruhilekoa bukatzean (Grezia, Estatu espainiarra eta Kroazia). Gazteen artean, HEHko langabezia tasa 28 estatuen EBeko batez bestekoaren bikoitza izan zen, garai hartan.

Sexuen arabera, emakume gazteen arteko langabezia tasa (%43,2) handiagoa da gizon gazteen artekoa baino (%41,6) HEH osoan. Lurralde lurralde ikusita, gazteen arteko langabezia %41 da EAEn eta %46,4 Nafarroan.

Nabarmendu behar da gizon gazteen arteko langabezia askoz ere handiagoa dela emakume gazteen artekoa baino Nafarroan (%51,2 eta %40,8 hurrenez hurren) eta alderantziz gertatzen da EAEn (%38,5 eta %43,9 hurrenez hurren).

### Datuak: gazte langabezia, iraupen luzekoa eta 55 urtetik gorakoak

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Gazte langabeak	26.500	13.800	12.600
Gazte langabezia tasa (%)	42,30	41,60	43,20
Iraupen luzeko langabezian dauden pertsonak	104.100	53.000	51.100
Iraupen luzeko langabezia tasa (%)	59,90	61,40	58,30
55 urtetik gorako langabeak	20.200	10.700	9.500

Iturria: INE


## 8. Langabezia-prestazioen estaldura

2015eko abenduan 80,9 milioi euro bideratu ziren langabezia-estalduretara Hego Euskal Herrian (kotizaziopekoak eta kotizazio gabeak batuz); hau da, gastu hori %19 jaitsi da, 2014ko hilabete berarekin alderatuta. Bitartean, langabezia erregistratuak %9,5 egin du behera; beraz, bien arteko ratioa (prestazioetan bana beste egiten den gastua langabe bakoitzeko) %10 inguru jaitsi da, eta 418,93 eurokoa da langabe bakoitzeko.

Gainera, langabeen %59k ez zuen inolako prestaziorik jaso 2015eko abenduan, hau da, kopuru hori %4 igo da urtebete lehenagotik aurrera, eta 2009ko datuaren halako bi da ia (orduan %31 izan baitzen).

Aldiz, askoz ere gutxiago dira prestazioak jasotzen dituzten langabeak, eta hori kezagarria da, kotizaziopeko prestazioak jasotzen dituztenei dagokienez: hots, langabeen %23k soilik jasotzen du kotizaziopeko prestazioa eta %18k, berriz, kotizaziorik gabeko prestazioa jasotzen du.

### Prestazioen estaldura eta batez besteko prestazioa langabe bakoitzeko. HEH, abendua




Iturria: SEPE

## 9. Batez besteko prestazioa onuradun bakoitzeko

Orain aztertuko dugu onuradun bakoitzak abenduan batez beste jaso duen prestazioa Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan. Lehen taulan ageri den bezalaxe, zenbateko hori arian-arian jaitsi da. Izan ere, 2015eko azken hilabetean, kotizaziopeko prestazioa 1.457,03 euro izan zen, eta kotizaziorik gabekoa, berriz, 499,96 euro. Nabarmendu behar da SEPEk Gizarte Segurantzari egiten dizkion ordainketak sarturik daudela kotizaziopeko prestazioan; beraz, jasotzen den zenbateko garbia taulan ageri dena baino txikiagoa da.





### Langabezia-prestazioen zenbatekoa batez beste, onuradun bakoitzeko, HEHn, abenduan

	Kotizaziopeko prestazioak	Kotizaziorik gabeko prestazioak
2012	1.600,71	509,43
2013	1.525,75	497,36
2014	1.478,91	491,76
2015	1.457,03	499,96

Iturria: SEPE

Horrela, 2012tik 2015era, %9 jaitsi da onuradun bakoitzeko kotizaziopeko prestazioetara batez beste bideratu den zenbatekoa. Horren aurrean, urte horietan, %1,9 jaitsi da onuradun bakoitzeko kotizaziorik gabeko prestazioetara batez beste bideratu den zenbatekoa, 2015ean gora egin baitu (2012tik 2014ra zenbatekoa %3,5 jaitsi baitzen). Azpimarratzekoa da, halaber, hartzaile kopuruan izaniko jaitsiera (%16,2 jaitsi da 2015ean; 2012 eta 2015 artean %35,1 jaitsi delarik).

Hartzaile kopuruan izaniko jaitsiera (kotizaziopeko prestazioa jasotzen dutenen kopuruak %18,8 egin du behera azken urtebetean) askoz ere handiagoa izan da langabeziaren jaitsiera baino (%9,5 gutxiago 2014 eta 2015 artean), eta aurreko grafikoan ageri den bezalaxe, horrek eraginda, gero eta langabe gehiagok ez dute inolako prestaziorik jasotzen.


## 10. Gastua prestazioetan BPGarekin alderatuta

Badago beste modu bat langabezia-prestazioetan egiten den gastua neurtzeko, edo gastuaren garrantzia eta bilakaera neurtzeko, hots, BPGarekin alderatuz (BPGa da merkatu-ekonomian ekoiztutakoaren eta zerbitzatutakoaren diru balioa).

2015ean, Hego Euskal Herrian, guztira, 1.073,4 milioi euro bideratu ziren kotizaziopeko eta kotizaziorik gabeko langabezia-prestazioak ordaintzera, eta dirutza hori 2015erako zenbatetsi den BPGaren %1,24ri dagokio. Zenbateko hori %21,2 gutxiago da 2014an bideratutakoa baino (2014an 1.363,1 milioi euro gastatu baitziren; eta

dirutza hori 2013an gastatutakoa baino %18,4 gutxiago izan zen).

### Zenbat gastatu den guztira langabezia-prestazioetan, eta zer garrantzi izan duen BPGarekin alderatuta, HEHn (2015eko BPGa IEN eta Eustat erakundeek hazkunde zenbatespenaren arabera kalkulatu)



Iturria: Eustat, IEN, INE, SEPE

Aurreko grafikoak erakusten duen bezala, 2009 eta 2013 artean urtero 1.500 eta 1.700 milioi euro artean bideratu ziren horrelako prestazioetara, hau da, Hego Euskal Herriko BPGaren %1,7ren eta %2ren balioa. Baina 2014an eta 2015ean, dirutza horrek nabarmen egin du behera, BPGaren %1,6 eta %1,2 izan baita.

Prestazio horietan izaniko gastu murrizketak askoz ere handiagoak izan dira langabeziaren murrizketa baino: izan ere, 2012tik 2015era, prestazioetan eginiko gastuak %37 egin du behera, eta langabeziak, aldiz, %25 egin du behera (EParen arabera; SEPEren arabera, % 12,6 jaitsi da).

Murrizketa horien ondorioz, gero eta langabe gutxiagok jasotzen dute langabezia-prestazioen bat, eta era kezagarrian jaitsi da hala langabe bakoitzeko eginiko gastuaren ratioa, nola hartzaile bakoitzaren batez besteko prestazioa.

## 11. Ekonomiaren egoera eta bilakaera

2015ean hazkunde ekonomiko nabarmena gertatu da BPGari dagokionez Hego Euskal Herrian. Hegoaldeko lau herrialdeen hazkundera % 2,8 izan da (Nafarroan %2,9 eta EAEn % 2,8).

Horrek ez du zerikusirik aurreko bilakaerarekin (2012an eta 2013an, BPGak behera egin zuen), eta subprime krisia hasi aurreko garaira itzuli gara (HEHko BPGa 2008an hazi zen azken aldiz %2tik gora).


Beraz, hurrengo grafikoan ageri den bezalaxe, merkatu ekonomiaren diru balio osoa ia inoizko handiena izan da Hego Euskal Herrian, 86.901 milioi euro, 2008an sortutako 88.387 milioien atzetik (hau da: oraindik ere gaude %1,7 apalago urte hartan baino).

Lurraldean arabera, Nafarroak 18.130 milioi euroko BPGa sortu zuen 2015ean (2008ko maximoan baino %3,2 gutxiago), zertxobait gutxiago 2008 eta 2011 artean sortutakoa baino. EAEk, bestalde, 68.771 milioi euroko BPGa sortu zuen 2015ean, hau da, bakarrik 2008an sortutakoa baino %1,3 gutxiago.


Agiri honetako enplegu eta langabezia ataletan azaldu dugun bezalaxe, 2007tik 2015era 150.000 lagunek utzi diote lan egiteari, eta horietatik, 100.000 langabezia datuetan ageri dira. Izan ere, 2015 bukatzean, 114.508 langabek ez zuten inolako langabezia-prestaziorik jasotzen, 2007ko bukaeran 36.342 zirelarik. Dena den, 2015eko BPGa handiagoa izan da 2007koa baino (%1,2 handiagoa HEH osoan).

Hau da, subprime krisiak eraginda eta krisitik ateratzeko ezarri diren neurri neoliberalen ondorioz, ekonomiaren hazkundera langileriaren bizkar eman da, eta gizartean dauden desberdintasunak areagotuz.

**Hego Euskal Herriko BPGa prezio arruntetan (euroak miliotan)**



Iturria: Eustat, IEN



1

## Europako egoera ekonomikoari buruzko zalantzak

Azken asteotan entzundako ahots askok zalantzan jarri dute Europako eta munduko ekonomiaren osasuna, eta bereziki finantza-entitateen osasuna (oraingo honetan Europakoena, batez ere). Elite ekonomiko nagusiei loturiko hedabideen ahotsak ere bide berean mintzatu dira.

Datu batzuek adierazpen horiek baieztatzen dituzte, eta hemen bi aipatuko ditugu:

- Okerrera egin du BRICS delakoen egoera ekonomikoak (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika). Egoera ez da homogenea guztietan, ezta pentsatu ere. Horrela, Brasilgo eta Errusiako BPGa behera doa (%1,7 eta %4, hurrenez hurren), eta Txinakoa, berriz, gora (%6,9; hau da, azken urteotako igoerarik apalena. Horri erantsi behar zaio Txinan barne ekonomiarantz egin den bira). Nolanahi ere, agerikoa da moteldu edo gelditu dela herrialde horietako ekonomia, eta horrek eraginak izan ditu jada munduko gainerako ekonomietan.
- Sinestarazi nahi izan digute ekonomia bultzatzeko aski zela interes-tasa apalak sustatzea eta, aldi berean, aurrekontuak doitzea (funtsean, gastu soziala murriztuta). Horren ondorioz, interes-tasa batzuk negatiboak dira eta, adibidez, negatiboa da gaur egun urtebeterako euriborra (hau da, hipoteka maileguak berritzeko erreferentziatzat hartzen dena). Interes-tasa apal horiek ez dute suspertze ekonomikorik eragin, kontrakoa iragarria bazuten ere. Gainera, tasa apalen ondorioz, finantza-entitateen egoera larriagotzen ari da, ez baitute errentagarritasunik aurkitzen ohiko banku-negozioan. Horrek espekulazioa sustatzen segitu du eta ez zaio inolako trabarik jarri, eta berriz ere badago burbuila

lehertzeko arriskua. Beraz, badago banku-krisi berria gertatzeko aukera, eta ikusten da moneta-politikak (interes-tasa apalak) ez duela baliorik izanzen AEB eta Europako ekonomia bultzatzeko.

Egoeraren Azterketa egitean, aurrez ere ELAK adierazia du Europako politiken helburua ez zela ekonomia bultzatzea, Banka salbatzen saiatzea baizik. Bi neurri mota norabide horretan joan dira:

1. Banka diru publikoaren bidez erreskatatzeko programak. 2008tik 2012ra (eskura ditugun azken datu ofizialak), Europar Batasuneko gobernuek 413.196 milioi euro bideratu zituzten bankuak birkapitalizatzerara edo haien aktibo hondatuak erreskatatzera. Hau da, dirutza hori urtebeteko BPGaren %5,44 da. Horri 3,37 bilioi euro erantsi behar zaizkio (urtebeteko BPGaren %27,37), hau da, garantietara eta bestelako likidezia-neurrietara bideratutako dirutza, bankaren alde egiteko. Sekulako dirutzak dira, eta horren ondorioz, gastu publikoa beste arlo batzuetan murriztu egin da.
2. Europako Banku Zentralak hainbat finantza-keta-bide eskaintzen dizkio bankari kostu apalean. 2008tik hona, dirutza horiek bi halako baino gehiago hazi dira, eta 2015ean ia 1,4 bilioi eurora iritsi dira.

Europar Batasuneko gobernuek eta Batasuna gobernatzan duten erakundeak behin eta berriz esaten ari dira doikuntza politikak aplikatzen jarraitu behar direla, eta horren ondoriozko "egiturazko erreformak" ere (bestela esanda, lan eta gizarte eskubideak murriztea, pribatizazioak areagotzea eta zerbitzu publikoekin zerikusia duen guztia negozio bihurtzea).

Hori ikusita, berriro atzeraldia eta banku-krisia gertatzeko arriskua dagoelako iragarpenak baieztatzen badira, onartezina litzateke berriz ere aplikatu nahi izatea azken urteotan pairatu ditugun politika berberak; hau da, bankuak berriz ere diru publikoaren bitartez erreskatatzea, eta are murrizketa gehiago egitea jendearen gizarte eta lan eskubideetan. Gertatu den bezala, horrela langabezia handiagoa izanzen litzateke, bai eta pobrezia handiagoa ere, eta kapitala izugarri



## Hilaren puntako gaia: europako egoera ekonomikoari buruzko zalantzak

---

metatuko litzateke esku gutxi batzuetan, desberdintasunak areagotuz. Eta abiapuntua, gainera, okerragoa da 2008koa baino. Itxura guztien arabera horixe litzateke egungo botere ekonomiko, finantzario eta politikoen aukera.

